


7ER

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
2N. ZENBAKIA

IRAILLA
— 1977 —



MANTEROLA TA BARANDIARAN

- ERIKIDE
- KRISTIÑAUKIDE
- LANKIDE
- ABADEKIDE
- ADISKIDE
- JAKINKIDE

EUSKERAZALEAK

EUSKERA ERABILTEAREN ALDE

.Bizkaiera, eta beronegaz batera Aitor'en izkun/ za, dan errialdekoa dala, benetasunez maite dabenez, Bizkaiera ikasten, edo-ta ikasi-barriak diranentzat, Eta bizkaierazko irakurgairik aurkitu eziñik dabilkiguzanentzat, Ona emen EUSKERA ERABILTE ALDEKO ALKAR TASUjV onetzaz azal-ikuluzko zer batzuk bizkaiera utsean.

AMABOST GIZON ETA EMAKUME BAT SORTZAILLE

Esku-artean izan dodan orriak diñoandik: 1967'garren urtean jaioa dogu.

Guraso, sortzaille ta ardura astun arazolsua leporatu ebanak, amabost gizonezko ta emakume bat.

Tarraiko lerroetan bakoitxaren izen-abizenak, gorago aitatu dautzuedan orrian dagozan lez artuak dira.

IZENAK

Jesus de Oleaga, Jose M.^a Olaizola, Carlos M.^a Gonzalez Echegaray, Julia Berrojalbiz, Jose' Antonio Montiano, Cdslor de Uriarte, Jose de Ezpeleta, Adridn Celaya, Miguel A. Astin, Juan. Ramon Urquijo, Eusebio Erquiaga, Fernando de Zubizarreta, Jose M.a Martin de Retana, Leopoldo Zugaza, Jose Luis .Bengoia to Jesus Acha.

BATZUK LANEAN DIARDUE

Izendatuen artean diran batzuk, e.ciñagaitik edo, aldendu ziran.

Bat edo bat il be bai.

Baiña ba dira, orraitio, lenengo egunetik gaur arteko urteetan, jo to ke, utsaren orde, leporatutako buru-austeari ukorik egin ez dautsoenak.

Burukideen buru, Jesus Oleaga jauna.

Jarraituko dogu.

LANDAJUELA'tar A.'k

EUSKERAZ ONDO EGIN

Gaztelerazko mucho-poco adiazoteko euskera. asko-gitxi erabilli oi dogu gure egunotan, baiña askotan oker eta oker.

Eta oker au geroago ta zabalago egiten dala dirudi.

Adibidez:

TXARTO

Erreka orretan ur asko doa
Etxe orrek diru asko egin dau
Gela orretan ai gi gitxi dago
Gaur bero asko agiten dau
Atzo barre asko egin genduan.

Neguan otz asko egiten dau
Goizeon jente asko etorri da mezatarara

Gizon orrek indar asko dauko
Gaur euri asko egin dau
Biar edo etzi diru asko izango dozu.

Alegin asko egin.

ONDO

Erreka orretan ur aundia doa
Etxe orrek diru aundia egin dau
Gela orretan argi txikia dago
Gaur bero aundia egiten dau
Atzo barre ta harTo egin genduan,
edo atzo barre aundiak egin genduan,
zan, edo barretan egin genduan,
barretan!

Neguan otz aundia egiten dau
Goizeon jente aundia etorri da
mezatarara.

Gizon orrek indar aundia dauko
Gaur euri aundiak egin dauz
Biar edo etzi diru aundiak izango
dozuz, edo dirutan izango dozu!
Alegin aundia egin edo alegin eta
alegin egin.

OARRA: Argi asko edo gitxi esaten dogunean, euskeraz ZENBAT argi dagozan esan gura izaten dogu. Bardin andra asko, gizon asko, baiña jente aundia.

PUXANA'k

OARRA:

URRILLAREN LENENGO EGUNETAN ASIKO DA EUSKERA IKASI GURA DABENENTZAT AURTNEGO IKASTAROA.
IZENAK EMOTeko EPEA, IRAILLAREN 15'ETIK AZKENERA ARTE.

JOKABIDE BI ERRIGINTZARAKO

ERRIKINTZAN BERO

Gogorkerizko agintaria il zanetik, euskaldunok sendo oratu dautsagu errigintzako lanari, politika bidezkoa agiri dala.

Len be egiten zan lan errigintzan, bide gogorretatik eta bide leunetatik, baiña orain agiriagokoa dogu lan au.

Ba geunkan euskaldunok errigintzako lan au egin bearra! Betez be politika-jokoan sartu bearra!

Gizaldi batzuk lenago, Euskadi'ren batasuna, agintari bakar baten ardurapean alkartuta agotea, billatu be ez genduan egin. Baiña gaur erri-batasun au guztiz bearezkoa dogula errez ikusi eta orrantza jokatzen dogu.

Zori txarrez, gizonen eskuz egindako muga orrek, oraindiño, zearo banatzen dau Erria, baiña ez ete da laster kenduko muga lotsagarri ori?

Errigintzan, batasunerantza ta buru-jabetasunerantza joten dabe gaurko politika-jokoak, Erriaren askatasun osoa lortu arte ez geratzeko asmoz.

JOKABIDE BI

Errigintzako lan bero onetan jokabide bi, oso berezituak ikusten doguz.

Batzuk, gaur bertan askatasun osoa eskatzen dabe eta ori lortu arte ez dabe izten euren eraso eta euren guda beroa. Ez dabe auteskunderik onartzen. Ez dabe gogorkeria baiño beste biderik ikusten.

Onein artean jarri bearko doguz, Bilbo'ko Aldundiaren buru zana it ebenak eta orretaraiñoakoak ez diran beste batzuk.

Ba dago beste jokabide bat, gaurkoz erritarrik geienak onartzen dabena eta gogorkeri-bidea barik politikearen bide zuzena ta sendoa artu gura dauana.

Oneik alkar-izketearen bidez eta Erriaren bultzakada baketsuak lagun dirala, elburu bardiñera eldu gura dabe. Oneik auteskundea onartzen dabe.

Alderdi baten erakutsi bat izan da Aralar'eko alkartze nagusia.

ALKAR JO BARIK

Eritxi ezbaridiñak izatea, berez, onartzekoa da, naiza batzuk gogoko izan ez eta geuretzat ezin artu, baiña txarrena, erriarentzat kaltegarriena, jokabide orreik alkarren aurka, alkarragaz burrukan, astea izango litzake, iñoz eta baten baiño sarriago jazo dan lez.

Gure artean izan beitez eztabaidak baiña Erria guztiok lenengo gauza lez artzen dogula.

Gure artean izan beitez jokabide ezbaridiñak, baiña alkarrari kalterik egin barik. Aldeztu dagigun bakoitzak berea, baiña besteak iraindu barik.

Eta iñor ez dagigun il, gitxiago odolez anai doguzanak, naiza eretziz oker egon.

Izango ditu Erriak oker orreik zuzentzeko bideak, baiña anaien odolaz geure eskuak ez dagiguzan gorritu. Egia da era askotara eskuak zikintzen dirana, baiña al dala ez beite jazo gure Errian, bakezale izan dan erri onetan, burruka geiegi ikusi dauan Euskalerrian.

GURE BIDEA

Guk, ZER egiten dogunok, ez daukagu politika-talde berezirik. Erri jakintza, kultura, zabaltzea da gure elburua, baiña ezin ukatu politikan be ba daukaguzela eritxi batzuk.

Ez gara gogorkeri-zaleak, auteskunde-bidea dogu naiago.

Ez gara burruka-zaleak, alkar-laguntza dogu naiago.

Egia esan-bearrak eta geure eritxia agertu-bearrak iñoiz alderdi baten itxurea ezarriko dauku. Eta politika joko zuzena ikusten dogunean, joko ori txalotu bearrak be bide orretara eroango gaitu, baiña gure bidea ez da, talde lez, politika-bidea kultura-bidea baiño.

Jakintza-bide au, errigintzako bidea da, lan onegaz Erria egiten diardugu.

ALARAR'EN JENTETZA AUNDIA

GIROA

Mikel Deun Goiaingrua!
Gaizkatu Euskalerrria!

Egun zoragarria benetan!
Zaar, gazte, mutil-koskor,
ume, gizonezko, andrazko!

Aldartc, gozagiro pozgarria
nonai!

A zan Aralar-tontorra irailla-
ren 25'ean!

A ta askoz gciago!

Danak biotz bat! Danak uste
bat! Danak itxaropen sutsu bat!

Euskal errialde oroetako guz-
tion alkar-ezagutzea, alkar zorion
bizienak emotea!

An izan genduan benetako
alkartasuna, batasuna!

Millaka igon giñan berebil
aundi ta txikietan, baita oñez
be mendi-troketatik, pagadi pare
zear!

Dan-danok, ludi osoari era
gure Euskalerrri txikia,
bakean izten dauskuenean, bes-
te erri ospetsuentzako eredu bi-
kaiña zala adierazoz !

Bertaratu zirenetatik, Pran-
tzi'tik, Irlanda'tik, Londres'tik
etorritako abertzaleak be ikusi
ta agurtu nebazan!

Katalandarrak ta Madrid'eko

abertzale-taldeak be begizatzen
ziran!

Berebil aundiak 557 zenbatu
enduzan eta 100 baiño geiago
izan ziran bidearen cstutasuna-
gaitik batez be, Aralarpeko crri-
txuetan, igon barik gelditu zi-
ranak!

* * *

EGITARUA

Egitarauaren zerrenda atzera-
tu egin zan.

Agiriaren irakurtzea ta orde-
kari batzuen itzak eguerdian izan
ziran.

Gero, aldarrikatuta egoan lez,
uri, erki, ta Euzkadi-Buru-Batza-
r eta beste autatucn bilkera ostatu
inguruan.

Andik laster erakundeen eta
ordezkariaren ibillaldia ta jentetza
ikaragarriaren txalo-jote eten-
bakoa.

A ez zan esateko, ikusteko
baiño !

Jarraian, Alderdi - Egune-
ko batzarra. Ez dot astirik dana pa-
txadaz azaltzeko. Baiña or do-
zuez zenik garrantzitsuenak: Lei-
agurra, EGI'
ren deia Bilbao'tar Peli'ren bi-
tartez, Irujo'tar Imanol jaunaren

itzaldi beroa ta, amaitzeko,
E. B. B.'eko lendakari dan Garai
jaunaren eus-
kerazko ta erderazko itzaldi sen

* *

JATORDUA

Berandu samar zan eta zelai-
inguruetan danok asi giñak gure
amarretako ta bazkariak jaten.

Erri-meza be ordu artcn izan
zan, deundegi-aurreko zelaian.

Gure ertzain gazteak ondo
be ondo betetan eben euren ze-
regiña. Eurak be txalorik be-
roenak merezi dabez.

* * *

JATSIEREA

Gero politcna, jatsicrea!

Bosten bat kilometro-inguru-
ko agerraldia, ibillaldi baketsua!

A euskal-erromeri jatorrene-
tariko bat zan!

Ontan gallego'tar batek oi-
u eban: Aupa La Coruna Azka-
tutua! Eta gogoaldi onenagaz,
inguruko guztiok barreari emon
geuntson. Bera be oso pozik.
Au da laterri-arteko erri-aldeen
benetako batasuna!

Azkenean nasc pizka bat,
«Albi» izeneko landetan, bi edo
iru landa errezkadan egozan da,
bakoitxak bere autobusa billa-
tzen.

Dana izan zan, ziur, unkiga-
rria, biotz-dardara bizienak emo-
tekoa.

* * *

MIKEL DEUNA LAGUN

Mikel deunak zerutik lagun-
tzen jarrai dagigula arren eskatu
bearra dogu.

Bere laguntzaz, bear-bearre-
ko dogun euskal gogoen egizko
batasuna jadetsi dagigun.

Esan dagigun ba, danok ago
batez

MIKEL DEUN GOIANGE-
RUA! GAIZKATU EUSKALE-
RRIA !

ARREGI'tar Josu'k



EUSKERAZ IKASI

Aurreragoko zenbakian gaztelerazko esaldi bi neutsuzan zeuk euskeratu zengizan. Oneexek izan ziran: **La próxima semana te dare mucha ocupacion eta este joven anda mucho todos los dias.** Zelan egin etc dozuz?

Esakuntzok onelan itzuli geinkezala uste dot: **Datorren astean bearleku aundia emongo dautsut eta gazte ori egunoro ibilli ta ibilli egiten da, edo gazte orrek bidaldi (edo ibiltaldi) luzea egiten dau.**

Arazo onegaz zer ikusirik badaukan jazokuntza bat aitatuko dautsut orain.

Nire lagun batek gaztelerazko LUCES Y SOMBRAS DEL MATRIMONIO euskerara itzuli bear eta onelantxe egin eban: EZKONTZAREN ARGIAK ETA ILLUNAK. Itzulkerari nire ustez ez egoala ondo esan neutsanean, zearo arritu egin zan bera, eta nik zelan itzuliko neunkan itandu. Nik erantzun: EZKONTZAREN ARGI-UNEAK ETA ILLUN-UNEAK. Ezetz berak —**une** atzizkia or ez egoala ondo ekin eta ekin egin eustan, atzizki orrek **aldia** (tiempo, momento) esan gura ebala-ta.

Egia da.—Une (—gune) atzizikiak aldia adiazoten dau, baiña ez ori bakarrik, baita gaztelerazko **espacio, trecho, sitio** be.

Adibidez: **gorri-une, baltz-une, lur me-une** ta abar esaten dogu euskeraz. Mutiko orrek arpegian **erre-une bat** edo **baltz-une bat** dauko, entzungo dogu errian.

Gaztelaniazko **esta casa tiene partes claras y partes oscuras**, esate baterako, **etxe onek argiak eta illunak daukaz** esanda euskerara itzultzea ez litzateke bape ondo egongo. **Etxe onek argi-uneak eta baltz-uneak daukaz** esan ezkerero, askoz obeto.

Atzizkiak elan erabili jakitea garrantzi aundiko gauzea da euskeraz ondo berba egin eta idazteko. Euskeraren aparteko gaitasun eta aberastasun bat ortxe dago.

A. Plazido Mujika'k here «Diccionario Castellano-Vasco» liburu mardularen atze aldean badakar atzizkien zerrenda luze bat. Atzizkiokaz liburuxka bat eginda be badauko, «Afijos Vascos» izena daroana. Oso mcsedegarria da liburutxu au.

Ez, euskeraz ez dago ondo **Ezkontzaren argiak eta illunak** esatea; **argi-uneak eta illun-uneak** esan ezkerero, ostera, euskeraren izakerari askoz obeto letorkioke.

PUXANA'k

IRAKURRI ZER!

ZER artu gura ba'dozu, ebagi txartel au eta bialdu:

Nik, eta 'tar 'k

ZER artu gura dot.

Zuzenbidea: errian, ka-
lean zenbakian.

Ordaintzeko nire kontua Bankuan,
..... zenbakiagaz.

ARRANTZALEAK

ANGULAK ETA ANT XOAK

DIRU - KONTUA

Adiskide on batek esaten daki. Bein, bere kontzientzia nasaitu premiñan ebillala, Loiola'ra joan zala. Ango jesuita bategaz orduetan bere kezkek agertzen jardun ondoren, arek esan eutsala: Ai, txotxo! Gaurko gauzak! Ondo ikusita dagoz emengo goraberak. Laburtuta, azkenean zer da kontua eta dana diru kontua.

Itxasotara begira nago.

Len euskaldunak, euskal arrantzaleak, eurentzat zituen toki asko. Ez jaubetasunez, erabiltzeko eskubidez baiño. Berezko eskubidez. Euren ekin eta alegin eta arriskuz billatuak. Tokietako jaubeak be ezagutzen eutsezanak.

TOKIA ESTUTU

Luzea da istoria itxasoetan.

Cristobal Colon berbera Ameriketara joaten ausartu ba zan, aurrez euskaldunen ibilleren barri ekialako zala diñoenak ba dira.

Bale arrantzan lenengo, bakallautan gero. Lebatz eta beste arraiñetan geroago.

Merkatu zabala, idegia egoan sasoi aretan. Gaur, zabaldu dalakoan, estutu.

TEKNIKAZ, GITXITU

Arrantsuak neurtu ezik, gaurko teknikaz, arrain mota asko galdu egingo litzakezala diño batzuk. Leike.

Burutasun barik jokatu dala itxasoan, indarrak zoro ta arrotasunez geitu ta ugarituz, etorkizunari begiratu barik...

Egiak azalez, aitzakiak lepoz. Eta sakonean, geienetan, norbereari eustea, bestien ardura barik.

MILLEN ARAZOA

Sei edo amabi milletako jaubetasun edo aukera berreunera luzatu bakoitzaren mendeko itxasertz lez.

Orregaz tengarri bat artu da, arma bat.

Umeen jokoa zan gure denporetan: emon da kendu zapatia kendu. Azkenean kendu. Ordaiña?

Norbereari eutsiz besteari ten eragin, bestea izorratu. Ittoteko zorian ipini. Orrela ordezkoa erre-zago lortu. Txil atara.

ITXASOA SARRATU

Len itxas zabala zana, orain sarratua da. Lizen-tziak, baimenak bear. Nai ta neurriak artu gerorako, ez ete zeinkean lengoei euren bizibidea ezagutu,

barrieri laga ez da be? Baiña lengoak be ibiltzen jarraitu nai ba dabe, arrantzatu nai ba dabe, baimenak bear. Txikota luzatu brankaz eta popaz estutu. Ori da baimen jokoa. Bestalde zer?

Orra tratua. Beti be tratu txarra. Itto eragin aurrez. Ittoten ikusten danari odola kentzea ez da gaitz.

Lenengotan baimen gitxi emon ziran. Geroago ugaritu pixkat, baiña aurrez euren merkatuen aberastasuna billatuz, euren gaiki ta gertuak emen sartu eragiñez. Arnasa, alde batetik batzuntzat; bestalde gaitza sartu.

UR AUNDI TA TXIKIETAN

Gizarteak norbera baiño ez dau ezagutzen.

Ur andietan ori. Eta ur txikietan, ur meietan be...

Frantze'ko itxasertzak, berezitasunez, antxoa bertan asi ta gelditu eragiteko aukerako da.

Euskal arrantzaleak ba eben irabazpide bat or. Ez bakarrik udabarrian, antxoa sasoi. Bai atuntsurako karnata orde antxoa txikia artezeko be, antxoa bizia artzeko be.

Urte batzuk dira eskubide ori kendu zala. Len, amabi millatako jaubetasuna zainduarren, euskal arrantzaleantzako begirapen pixkat egoten zan, ama-bitik seira bitartean ainbesteko gogortasun barik. Orain, ain zuzen, donibanetar anaiak dira emengoan aurka jarri diranak.

Atzean kakoa: ordezkoa billatzeko era, eutsigarria.

Baiña euriak alde askotatik bustiten dau eta emengo arrantzaleak be esnatu dira.

ANGULEN ORDEZ?

Angula asko artzen da itxas orretan. Arcachon eta ingunruak ugariak dira orretan. Iru milla millo peseten angulak ekarten dira andik alderdi onetara urteoro. Dirutza da. An artzen dan %, 95 emen jaten da. Ezin bizi, baiña angulak ziri ziri guri.

Ta aurten?

Antxoa arrantzarako traturik egin ezik, ez ei da emen sartuko angula kamioi bat bakarrik.

Orra jokoa.

Ten batak eta luza besteak, zerbait egin leikela dirudi. Ur andietakoak era baten, txikikoak bestera. Ikus daigun. Denporak esango dabe.

Adiskide kezkatiares jesuita lagunaren «kontua» luzera dua. Azkenean be arek egia: Dana diru kontua.

A. ZUBIKARAI



EUSKAL-EKONOMIA

BARRI - ITURRIA

Euskal diru oin edo Ekonomia kinka larrian aurkitu oi da.

Danok zer au baieztu bearra dogu e°llan.

Egoera onen zioak bere, zustrai ezbaridiñekoak diranez, ez da ez erreza zergaili bakoitxari bere neurria artzea. Ori la be, esan bear dogu, onelan politika ta gizarte-arazoak zati aundi bat izan dabela.

Bola dagiogun begirakada labur bat gure ekonomiari.

Asteroko ekonomi - barriernoille batek, «Empresa 2.000» izenezkoa Gera, oraintsu idaz-lan bi argitaratu ditu Euskal-Erriaren ekonomia, gain-gaiiazka ba'da be, lantxo oneitan aztertuz.

Idaz-lan bi onein rrauiña Gareala lerro batzuetan emotera noatzue.

*

LEIZARUNTZ GOAZ

Euskalerraren izaera egungo egunean, barren-barrendik ustelduta ta kutsatuta dago.

Euzkadi'ko politika-arazo astun ta larriak gure diru-oiñari mazkal-ezaindu ta itxura bakoa damotsoe bene-benetan.

Bestalde, euskal-industriak beti danik izan dauan garrantzi pare-bakoa illunduta lez dager urte oneitako sezeziño - aldegit nabarmenagaitik.

Gaitza ez da oraingoa. Ez ta ere, 19 73'ean asitakoa. Urte artan lxi-mist eta beste energi-indarren gaitz-aldi, krisisen asiera nabailaa ba'genduan.

Aurreragolik datorku ekonomi-gai-sotasun au, ain zuzen be.

Olan ba, egunotan gaiso-aldia gorengo maillan aurkitu oi dala esan geinke. Eta akaitza igaro ondoren barealdi pozgarria datorren lez, era berean, gure ekonomiaren egun-senti barrizlatua, piztuera itxaropentsua, ur-urrean dagola deritxagu.

* *

TRESNA BARRITZEA

Tresna barritzearen garaia eldu jaku.

Lantegiaiak geienbaten aldatu bearra dabe berein Euskal-industrietan eta aldaketa au ez tresna zarrretan bakarrik, baita be, ta gogotsuago, euskotar guztion gizarte-artuemonetan nabaritu bear da, euskaldun ela bertoratu diran dan-danok gerrago ta alkar-begirune ta bizi laguntz obeagoaz bizi gaitzezan.

* *

DEMOKRAZIA TA LANGILLEAK

Demokrazia osoa lortzeko su la gar gabiltz euskaldunok.

Ez uste, baiña, naikoa danik. Ez bein.

Onez gain guztiz preminazkkoa dogun elkargo ta langilleen alkartasun la batasun zintzo bat lortu bearra dogu.

Danok leporatu bear dogu lan ori.

Bai buruzagi la nagusiak, baita be beargin eta erri lauak, guztion arazoa danez, gure aberriaren diru

Gure ekonomiak orrela izango ditu berrero be galdu zituan aukera la gaingora gogoangarriak.

* * *

BESTE ERRIALDEETARA

Bigarren idaz-lanak diiioanez, Euskal - elkarte batzuk edo beste erkietara doaz edo euren Elkargozabalpenak kanporaluz, errialde orretaruniz luzatu daroet.

Edonork dakus jokaera onek, bata zein bestea, oso galgarriak dirala gure ekonomiarentzat.

Olan jarraitzekotan, Euskal-Buruzagiak, bedarra ankapetik ebagiten, igilauten daragoie Euskalerrian, zenbatu ezin beste kalte berari damotse la.

Pakea, geneza, bear-bearrekoa dogu.

Euskalerria beargin"ta da eta ekiñaldi iraunkor bizi bategaz, eragozpen guztiak gainduko doguzalakoan gagoz.

Olan burdin eta galtzairu-arazoak, bardin arrantza la arrantza-leekin zer-ikusirik daukenak, olan lantegi txiki la erdi-maillakoenak, era berean ostatudunenak, baita be diru ta bialgai ateratzailleenak, abar eta abar... danak gaindu geinkez, eta len Galera izan giñan Erri paketsu, jori ta beargiña berrero be izatea lortu.

Gaizkatu dagigun ba, gure eko-raonaia!!!

KONTU-KONTARI

ZERUKO BARRIAK

ESKEKOA ZUR

Nor etc da ketoagoa., andrea ala gizona?

Emakume bat bigarrenez ezkondata bizi zan. Joanes izan eban bere lenengo senarra, ta Peiu bigarrena.

Andrea etxean egoan baten, gizon bat agertu jakon eta esan eutson:

—Ba zagoz?

—Zer? Emendik oraingoan?

—Bai.

Nondik zatoz?

—Beste mundutik!

—Eta zer barririk beste munduan? Ezagun dozu nire Joanes?

—Ezagutuko ez dot bat! Asko gitxitu da... erdi billozik eta dirua be eskas... !

—Gizajoa! Eroango dautsazu zeozer?

Bai, bai!

Emen itzi zituan oiñetakoak eta Pcu'k ezin ditu sartu, baita galtzcrdiak, prakak, garrikoa, txamarrea, txapela...

Eta jatekorik ez?

Baita! Baita! Ara, urdaiazpikoa, urdaia, saieskiak...

Eta dirurik ez jako eroan bear?

—Ara! Eutsiz berrogei ogerleko. Eta esan ogiozu asko gura dautsadala, Peru'ri baiño be geiago.

* * *

SENARRA LARRI

Pozik joan zan eskekoa.

Andik gerotxuago etxcratu zan Peru eta emazteak esan autson jazo zana.

Deabru zikiña oiuka! —esan eban Peru'k, eta kortatik here beor baltza atera eta —Jainkoa lagun, arrapauko dot— esanda joan zan.

Eskekoa here bidean bildurrez joian, baten bat etorriko zalakoan atzerantza begira ta begira.

Laster igarri eban beorrarcn oin-otsetatik eta eskuetako bere gauzak sasi-artera bota eta bide ertzeko arri zabalean jezarri zan.

Eldu da beorduna ta diñotso:

Ba zagoz!

Bai. Eta zu ba zatoz!

—Bai... Zu! Ikusi dozu emendik eskuan gauza batzuk dituala gizon bat?

—Baaaai! Oraintxe sartu da orra aurreko basora. Ariñeketan eta atzera begira joan da, baten baten bildurra ba'leu lez.

—Baiña zelan sartu ni beorragaz baso sasitsu orretara?

—Beorra diñozu? Neuk zainduko dautzut aren billa zabilzan bitartean. Zoaz arin!

Sartu zan Peru aurreko basora.

Eskekoak, here gauzak batu, artu Peru'ren beor ederra eta lau-oinka iges egin eban.

* * *

ETXERA BARAGARRI

Illun sartu zan Peru bere etxera. Baiña argitu eban bere arpegia, andreak igarri ez egion.

Peru! Etorri zara?

Bai...!

—Eta topau dozu zerutik etorritako gizon ari!

—Bai...! Eta bizkorrago zerura eldu daiten, beorra emon dautsot!

ESTONBA'tar Manuel

ZAZPIRAK BAT ALA SEIRAK BAT?

- Naparroa len eta gaur
- Izatez beti bat
- Hueska ta ERRIOXA
- **Burua euskaldundu**

BeGi entzun izan dogu zera: Euskalerriko ~ariak edo lurraldeak zazpi dirala, eta orregatik esaten dogu «ZAZPIRAK BAT».

Gure aberriko zazpi zati oneek zeintzuk diran ba-dakigu: A raba, Bizkaia, Gipuzkoa, Laburdi, Zuberoa, Naparroa eta Benaparroa.

* * *

¡Naparroa gaurko egunean zori-tzarrez zati bitan barralute dago bien artean muga edo sasi-muga dagolarik; baina leen ez ;gan olan.

Historian zear gora joan gaitezen, gauzak argitzeko.

Fernando «katoliko» Erregeak 1,512 garren urtean amen indarrez Naparroa osoa arrapatu, eta Kastillarekin lotu eban.

Bahia 1,530 urtean V-garren Karlos Enperadoreak Frantziako Erre-rearekin alkartasun bat egin eban, Benaparroa bere egiazko jabeari bariz emonaz.

Onela Naparroa gaur arte bi zatitan banatuta aurkitzen dogu:

Goi-¡Vajarroa, bere Iruburuia Iru-ira dala, eta Benaparroa, bere burn Donibane Garazi dalarik.

Orregatik .Naparroa izatez eta historiari bat da, baiña ezpataz eta indarrez bi zati.

* * *

Baiña guk ezin geinke onartu ezelan bere, hi Najarroa dirala pentzatzzea eta esatea. Gure kultura, guk



eskoletan ikasi doguna, kaslillakoa da, eta kontuz ibilli bear dogu gauzak euskaldundu legez pentzatzeko.

Au ala izanik ez daigula ontzat artu zera: goi-naparroakoak bakarrik dirala benetako naparrak, eta Benaparroakoak bigarren maillako, edo erdi-naparrak bakarrik.

Naparroa biak arriarma edo eskudo bardiña dabe: Santxo Azkarrak, Naparroako erregeak Navas de Tolosan, moroei irabazitako kateak.

* * *

Orain beste itaun edo galdera bat: zenbat Euskalerrri dira? Edo izan dira?

Hueskako lurraldeak orain Euskalerrri ez badira ere, leen ez ete ziran Euskalerrriko zati izan?

Ango erri eta lokien izenak esaten

deuskue antxiña barik, ango bizilagunak euskaldundu izan ziralda: Javierregay, Oza, Lizara, Zuriza ez ete (lira euskal izen garbi-garbiak?)

Eta azken galdera edo itauna:

Eta Errioxa?

Ba dakigu Kalaorra, erromatarren aldian euskaldundu zala.

Ba dakigu Ojaskastro errian 13 garren gizaldian euskeraz egiten zala.

Ba dakigu Errioxako izen asko eta asko euskaldundu dirala: Ezkaray, OIauri, Sajazarra ez etc dira euskal izenak?

Ba dakigu orain 1.000 eta bat uric an, Errioxan, San Millango fi ailetxean idatzi ziralda leenengo euskal esaldiak...

Erdal kulturarekin, kontuz!!! Burua euskaldundu bear dogu.

Goikoetxca'tar Iñaki

BIZITZA

OMENALDIA

Aurten, iraillaren 24'an, zapatuz, omenaldi ederra egin jakon Aita Juan Mateo Zabala pran-ziskotar euskal idazle jatorrari.

Bilbo'tarra zencz, Bilbo'rr egin geuntson omc-naldi ori, Bilbao'ko alkatearen eta Euskaltzain-diaren babes eta pentzutun.

Egitarau edo egin-legea oncla: goizeko 12'etan, Bidebarrieta kaleko Udal-Liburutegian, Euskal-tzaindieren oizko batzarra, gai oneikaz: maiburuak batzarra idegi ostean, A. Villasante'ren augurra. Ondoren itzalcliak: 1) A. Agustin Biain, Zar-rautz'ko konbentuko nagusi danarcna, Juan M. Zabala'ren bizitzaz; 2) A. Lino Akcsolo'rena, J. M. Zabala euskal idazle, ipuinlari ta sermolari, eta 3) Alfonso Irigoien'cna, Bilbo ta euskeraz. Azkenik, euskal irakasle izango diranai tituluak emon jakezan.

Jcntez bete-bete egin zan arctoa.

BIZITZAKO JAKINGARRIAK

Bilbo'n, uriburu onetan jaio zan zabala 1777-9-21'an, San Anton inguruan, eta ementxe batcatu eben urrengo egunean.

Bar az, aren jaiotzatiko bigarren cun-urtea ospa-tu nai izan zan alik egokicn.

Gazte zala, latin eta enparauak, Bilbo'n bcrtan, frantzizkotarren komentuan ikasi zituan.

JUAN MATEO

(1977)

Ondoren eleiz-karrera amaitu ta mezako egin zalarik, au da, 1804'an, Filosofi-irakasle izendatu eben Bilbao'ko komentuan bertan.

1808'an, ostera, Napoleon Bonaparte'k, prai-leak euren etxeetatik bota zituancan, Galizia'ko Herbon aldctik ibilli jakun aita Mateo.

Azkenez, erri-miñak joa, Zarautz'eko mixio-larien komcntua eskatu eban lan egiñez bizi izateko.

Baita lortu be ara joatea.

Eta antxc, 1815'tik eriotzari arte, ots, 1840 rarte, lan ederra burutu eban autortegian eta irakastegian.

Birritan izan zan komentuko nausi, 1826'an eta 1839'an.

Bigarrenez aukeratu cbencko urtcen izan zan, dakigunez, karlista ta liberalen lenengo gudatearcn amaia, Bergara'ko besarkada iruzurtsuaren ostean ain zuzen, Egun artega ta urduritsuak, noski, garai artakoak.

Aita Zabala bi bider eroan eben baltzak, au da, liberalak Getari'ra fusil artean; beste hi aldiz komentua arakatu eutsoen lotsa aundi barik, berak diñoenez.

EUSKAL LANA

ERDERAZ

Lan bi osotu zituan ci doaz : 1) El Verbo regular vascongado del dialecto vizcaino (Donostia, 1848), A. Zabala il eta zortzi urtera Gipuzkoa'ko probintziak argitaratu eutsona, ta. 2) Noticia de las obras vascongadas que han salido a luz despu es de las que cuenta el P. Larramendi (Donostia, 1856), L. L. Bonaparte'k argitara emona.

Lenengoak Bizkaiko euskal aditza aztertzen dau, guztiz sakon ta zentzuncz.

Bizkaiera ezezik, ordurarteko euskal gramatika-laricn lanak be ezagutzen zituan; eta gure aditzarcn nortasunak batez be arrituta-eukan; beste izkun-tzak cz lako joku crnegarria dau, mec ta gozoa, labur csatcko.

Gaiñera, gure aditz-joko onetan, «silahak ezezik letrak be esan-nai baten jabc dira».

Eta joko ori ain ugaria baita, zelan ikasi dana?

Nec aundi barik; joko sail orrcik ugariak dirala be, erakuntzaz oso «baitira legcpeko».

Bigarrenak, ordurartc agerturiko euskal li-buruen zerrenda dakar; laburra izanda be, gure literaturan egin diran bildumctatik osoena, garai artarako beintzat.


Euskalki guztietakoak dakaz, naiz mugaz emcndikocnak naiz mugaz andikocnak.

Orrez gain, ak liburu ortan idazke bako-txari buruz emoten dauskun erctxiak be ba dau garrantzi berezia.

EUSKERAZ

Euskera utsean be cz chan txikia osotu.

Lan hi beñik bein aitatu geinkez: 1) Alcgiaik eta. 2) Eleiz-itzaldiak.



EO ZABALA

1840)

Bizkaiera- dagoz Aita Zabala'ren alegi edo ipuiñak. 23 guztiz.

Gaixoaldi baten, bere aditzaren erakusburutzat lez idatzitakoak dira, itxura danez.

Gero Abbadic jaunaren eskuetara jo eben alegiok, eta a il zanean, Paris'ko Liburutegi Nazionalera.

Azkue'k aurkitu zituan, eta J. Urkixo'k bere RIEV-en argitaratu cuskuzan, titulu onekin: *Fd-bulas en dialecto vizcaino* (RIEV, I, 1907, 90 ta'529 orrialdeetan eta III, 1907, 27 orrialdean).

Geroago be *E-usko-Alegiak* (Donostia 1934) izenarekin J. Ariztimuño'ren itzaurrez apainduta «Euskaltzeleak» eritxon bazkunak atera zituan.

Piper miñez gozatuta dagoz, bizkaiera ederrcan.

Elciz-itzaldi mordoia dau A. Zabala'k, oraindiño argitaratu barik.

Mixiñoietako scrmoiak dira.

Egin zituan itzaldietatik asko galduak izango dira, dudarik bage, 25 urtetan mixiolati trebe izan jakun cta.

Euskera jatorrean biribilduta dagoz itzaldiok be, cta ari egiñiko goratzarrcan A. Lino'k iñoskunez, garai arctako oitura, ekanda eta olacocn arrobi oparo doguz itzaldiok.

Alakoren batean ikusiko al dabe argia, liburu mardula osoturik, eleiz-itzaldi oneik be.

IPUIN BAT EREDU

Aita Zabala'rcn alegiak, goi-goia maillakoak doan, cz dot uste txiki geratuko litzakczenik. cz ba'dira bc, Esopo'k, Fedro,'k, Iriarte'k, Samanico'k eta beste antzekoak idatzi cbczancn on-

Ona bat, neuk ikusi dagizun:

AZERI MATS-GUREA

Lukia baten yoan zan mastuira egozanean dingilizka mordak. Aitu-ekzero, diño: —Ai, begira, eta ze onak!

Oraingo onetan beintzat, bear yoat ase ta bete nik sabel gosea. O ze eguna! ene mats-mordoak, gaur bai neurea!

Abiadu da. Gero nondik nora ekingo deutsan mats aek yateko:

oraingo saltuka egiten dau gora aoa artzeko.

Gero atzeko oin bien ganean zutunik jarri ta agaitik atxina igo nai leuke. Zer da azkenean ak ez egiña?

Bein eginari gitxi eretxirik, beste askotan abantetan yako indarrak, putzak barriro usturik arrapetako,

Guztiz alperrik izan zan; orrenbat

eze egin-alak ta ezin-eginak emon-ekzero, ez dau ez lakain bat ostu aginak.

Ostean gero gure lukitzuak matsai begira epe dollorrean: —Ez dozak gauza, ez dozak elduak-esaten eban.

Berein onango gizonen artean! Zerbaitegaitik buruak urratu, al dana egin t'ezin dabenean atxakiatu.

Orrclaxe egiñak dituzu beste cgctabiak be. Urteak egaz doaz.

A. Zabala'rcn izkera, cun eta irurogeta amabost urteko izan arren, zarra al yatzu?

Ba leiteke gaur darabilguna baiño bost untzc ederragoa izatea.

Ez daigun, bada, ezetsirik saietsera itxi. Merezi dau gure omena.

Zein ederren? Bere lanak —aditz, ipuin, itzaldi— irakurri ta ikasiz dagitsoguna.

AITA ONAINDIA

Zarautz'ko Franzisko'tarren lekaide-etxean dagon «Libro Becerro» tik artutako zatia da. Auxe diño: «1.º Juan Mateo Zabala anaia »Bilbo'n jaio zan, 1777'ko iraillean, »1815'ean urrillean etorri zan ikastetxe onetara. Herbon'go Antonio »deunaren ikastetxean egin zituan »urte bi. Emengo arduradun zala »il zan, 62 urte zituala, 1840'ko »zezeillaren 6'an. Ebanjelio-aldean »emon jako lurra. Jakituna ta »santua zan: jan-edan gitxi, lo »gitxi ta otoitz askokoa».

Señor Juan Mateo Zabala nació en Bilbao por Setiembre de 1777, vino a este Colegio de 1795 por octubre y. Habia estado 2 años incorporado en el Antonio de Herbon Colegio de misioneros. Murio siendo Juan Juan, de edad de 62 años a 6 de Febrero de 1840. Este enterrado a lado de Evangelio Era Sabio y Santo: era de poco comer y poco beber, de poco sueño, y de mucha oracion.

EUSKAL GIROA

DIMAN



Arratian erri bat dago, aide askolik euskal giroa emoten dauana. Zoriontsuak olango erriak, Euskadiko giroa zaindu ta zabaltzen dabelako. Bai, norberak bere etxea maite izan bear dau, eta Euskalerriko zati bakoitzak bertako gauzak eta oiturak aurrera eroan bear dauz.

Dimak oil egin dau. Iailaren 17.gn jai eder bat ikusi dogu, eta jai orrelan parCe artu dogu. Dimako eleizan gagoz; goizeko amabiak dira. Pelota lekuan gizon, emakume ta gazte asko. Txistulariak be bai. Berebillak banan eltzen dira. Olango baten badator Bilboko Gotzain laguntzaille dan Uriarte'tar Juan Mari. Zer dago gaur Diman? Erri onelako seine bat gerturik dago abadegintza artzeko: Aurrekoetxea Olabarrri'tar Martin, Olazabal' go auzokoa (irukoiztarra edo trinitarioa). Eta baste gazte bi, Dimakoak eurek be, ezkontzak o sak ramentua artuko dabena; mutiLla, Aurrekoetxea Olabarrri'tar Txomin, Ola eta Altuna'tar Elisa, Artaun'goa. Mutil biak anaiak dira, eta abadegintza artuko dauanak berak onetsiko dau bere anaiaren ezkontza.

Asi da eleizkizun.a. 18 abade altara inguruan; erriak betetzen dauz jarlekuak. Lorez eta argi. beterik kristau-erriaren etxea, eta aguzk i ederra zeru goiengitan. Abestiak, oarrak eta irakurgaiak gure izkuntza ederrean. Gotzainak euskera garbian it. egiten dau. Bai, ordua ta garaia zan Euskadin euskaldun Gotzainak ikusteko!

Meza santua aurrera doa. Badalor «eskeintza». Zer eskeintzen dau erriak? Ogia ta ardaoa, beti lez. Baia,

orreikin batera beste gauza batzuk be hai, sarritan ikusten ez diran gauzak. zeintzuk? Atxur bat. Euskalerria tradizionalki nekazaritzan Ibili da; gaurko gazte bien, edo obeto esateko, iru gazteen gurasoak, nekazariak dira. Nekazaritzako izerdiaz irabazten dabe eguneroko ogia. Atxurra eskeintzaiaz, euskaldunen bizitzako neke guztiak opatu jakoz Dimait Jaungoikoari.

Gero, txori bat kaiola barruan eskeini da. Gizon Grath artzen dan kaiola ori, esanaz: «Txori wick, Jauna, askatasuna maite dau. Gizon eta erri guztiak be, batez be gare Euskalerriak, biotz biotzez askatasuna gura dabe. Badakit, gure gurari ori lortzeko bidea gatxa dana, bairia gerturik gagoz bear dana kementsu egiteko elburu oiz lortu arte, askatasuna gizon guzlienlzat gauzarik aundiena da-ta. Gure asmo oneik zintzoak dirala adiera meza ostean kaiola onen atea zabalduko dot, txoriari askatasuna emonaz. Baso ta mendietan egaz euki daiela bakea ta poza».

Bat, mezea amaitu danean, eta pelota lekuan, emon jako txoriari askatasuna. Erria txaloka asi da... Ori, «simbolo» bat besterik ez da izan. Orain gerturik gagoz euskaldunak Euskadi osoren egiazko askatasuna ta burujabetasuna etorri daitenean txalo beroak eta luzeak agiteko.

Noiz ikusiko dogu egun argi oil?

Olabarrri'tar M.



OGETA BOST URTE GOTZAIN

GOTZAIN GAZTE BAT ZAN

Aurten, urrillaren 12'an, bete dira ogei ta bost urte gure Gotzain dan Antonio Añoberos jauna gotzain egin ebela.

Egun onek zerbait adiazotan dausku guztioi.

Orduan gotzain gazte bat zan, berrogeta bi urte uste dot. Gotzaiñak zartzaran egiten zirala uste izaten dogu, baiña beti ez zan orrelan izaten.


EUSKALDUNTZEN

Añoberos, jatorriz euskotarra zan eta bere ikasle-aldian egin zituan euskera ikasten alegin batzuk be, baiña egun baten erritxu baten berbaldi bat euskera egin ebanean, ango abadeak onelan esan eutson: «Ederto berba egin dozu, baiña ezer be ez jatzu ulertu».

Berba orreikaz goibeldu ta atzeratu egin zan eta bere euskera ikasteak bertan bera itxi zituan.

Bilbo'n zenbat bearko eban gure izkuntza jakin baeban ez eban itziko, baiña geroa ta etorkizuna beti izaten dire illunak.

Gaur euskereari ta euskaldunai dautsen maitetasuna ondo agertzen



25 URTE GOTZAIN

dau, al dauanik ondoen eta erea dauan guztian euskera erabilliaz.

Maitetasun ori berbakaz barik egiteakaz agertu bear izan dauanean, guztiok dakigun lez, adoretu ta kementsu jokatu dau gure Antonio Gotzain jaunak.

KATEDRALEAN

Ogeta bost urteak diralata, katedralean alkartu giñan gotzain jaunagaz.

Eleiztarrez bete-beterik egoan eleizea eta Mai Santuaren inguruan eun eta berrogeta amar bat abade, beste berrogeta amar inguru eleiztarrakaz.

Gotzain laguntzailleak egin eban berbaldia eta berak agertu zituan burubide batzuk oneik izan ziran:

- Gaur, lenago baiño urduritasun gitxiagoz eta pozago alkartu gara.
- Abadeak eta lekaide-lekaimeak, Vaticano'ko II Eleiz-batzarrean argi dagoanez, gotzaiñaren laguntzaille bereziak dira.
- Ez dogu izan bear, antxiña lez, abadeok giza-mailla berezi bat, baiña eleiztarrakandik berezitura dagon taldea gara.
- Berezitasun au aiztuten dogunean, lanerako poza galtzen dogu eta ez dogu jakiten non gagozan eta zer garan eta gure Barri Ona zabaltze-lana oso aldatz-gora egiten jaku.
- Beste alde batetik, ez dogu aiztu bear berezitasun au ez dala beste ezertarako, Jaungoikoaren Erriari obeto laguntzeko baiño.
- Talde batek lagundu bear au aiztuten dauenean berekoi biuritzen da eta talde izatea be elburu barik geratzen da.

Azkenean Gotzaiñak eskerrak emon zituan, labur-labur, eta Aita

Santuaren onespina eta eleizpeetan jenteagaz artu-emona izan eban, zeozertxu jateko ta edateko eskiñiez.

ALDI TXARRAK ETA ONAK

Gure artean daroazan urteetan izan ditu D. Antonio'k aldi txarrak eta onak, nire ustez txarrak eta neketsuak ugariago.

Samintasunen artean nagusi, berbaldi bat zala ta sortu zan goraberea izan zan.

Bera erbestera eroateko egazkiña gertu egoan Sondika'n, poliziak be prest egon daiten deika, baiña bere erantzuna sendoa: «Aita Santuaren aginduz ez ba'da, ez dot urtengo, eta atera gura ba'nozue pistolokaz etorri bearko dozue».

Eta bera ikustera urreratu nintzanean, besarkada luze baten ondoren onelan esan eustan: «Aurrera egin bear dogu! Erriagaitik gitxiagorik ezin geinke egin».

Berbaldi ori izango zan, nik uste, Eleizeak Euskalerrria lenengoz aintzat artu ebanekoa, lana egiten asteko oinkada eder bat.

SAMINTASUNAK ALKARTUTA

Gogoan daukadaz, eta sekula ez jataz aiztuko, Cadiz'en bere agotik entzun genduzan berbak.

Gure Gotzaiñak baldintza batzuk bete bear ebazala uste genduan, niretzat garrantzi aundikoa zan euskera jakitea be.

Berak etorteko gogo sendoa agertu ebanean, esan neuntsan: «Samintasun artean jarraitu bearko dogu» eta erantzun eustan: «Zuen samintasunak txikiagoak izan daitazan alegin guztia egingo dot»...

Berba ori ondo bete dauala uste dot. Orain samintasunean eta p ozean alkartzen gara.

OLAZAR'tar Martin'ek

BARRIAK

KILI - KILI EGUNA

ZER onen irugarren zenbakian esan genduan lez, urrillaren 9'an Kili-Kili eguna ta umc euskaldunen eguna ospatu zan Bilbon.

Euskalerra osotik 9 bat milla umc bildu ziran Bilbo'ko Areatzan, naiz eta etorteko egoan jende asko agertu ez, egoan politika-giroagaitik.

Eguneko ospakizun guztiak egitarauan argitaratu ziran bezelaxe ospatu ziran.

Egun zoragarria benctan Kili-Kilik emondakoa, umetxoak bai pozik ibilli zirala ta nagusiak crc bai.

Kili-Kili aldizkaria aurkeztu zan (1). Umeenztako egingo dan aldizkari berezi bat bizkaiciaz eta gipuzkeraz. «Pantera rosa», «Asterix» eta abar agertuko dira aldizkari orren orrialdeetan.

Urteko arpidetza 350 laucrleko izango dira, artu gura dabcnak idatzi zuzenbide ontara:

KILI - KILI

Somera, 10

Bilbao - 5

Beraz, jendetza ikaragarrizkoa batu eban Kili-Kili egunak naiz eta len esan dogun lez egoera bere aurkan izan, datorren urtean Jaungoikoak gura ba'dau beste errialde batean izango dogu jaialdi errikoi au.

Gure zorionak Kili Kili'ren asmaltzaille ta zuzendari euskaltzain dan Retolaza'tar Jose Antoniori ta bide batez beragaz batera jaialdi ori eratu ta aurrera eroan eben guztiei.

ZANGRONIZ

(1) Urrengo baten aldizkari oneri buruz zcaztasun geiago emongo dantzucgu.



«SABI» PORTUGALETE'N



Portugalete'ko sendi batzuk, euren seme-alabai Bizkai'ko euskerea ez jakela irakasten ikusita, arduraz beterik, batzarra egin dabe.

Batzar orretan artu daben lenengo ebatzia, bizkaierrea ondo dakien andereiño bat artzea izan da. Urrengo ikastola egokiak eta irakurgai errezak billatuko dabez.

Bazkun orrek artu dauan izena, SABI izan da.

SABI itz laburtu edo «sigla» bat dogu eta SENDI-ALKARTEA, BIZBAIERAZ IRAKAS-TEKO esan gura dau.

Euskereari indarra emoteko arduraz dabilzan guraso orreik zuzen jokutzen dabe, gure ustez. Portugalete'ko sendi-alkarte orren antzeko bidetik jokatu bear genduke bizkaitar guztiok, orrelan geure euskerea zaindu ta indartu dagigun, geure euskalkiari eutsi ta indarra emonez.

Jakiña, Euzkadi zabaleko euskaldun guztiok, errialde guztietan ulertzeko euskera bat bear dogu, baiña orretara eltzeko bidea, gure ustez, geure euskalkia ezagutzetik eta ondo ezagutzetik asten da.

Bide egokia da ba, SABI'k artu dauana: euskera ikasteko onena eta euskerea batzeko oiñarririk ziurrena.

EGILUZE

AITA APOITAGAZ ALKARRIZKETAN

ZER onen lengo zenbakian Aita Apoitagaz alkarrizketa bat izan genduan eta esan geuntzuen lez, oraingo onetan, Teruel aldean berari jazotako gauzak azalduko doguz.

Saibigairen gudariaka: egon ondoren 4 illabatez giltzapean egon zan San/ortan, andik Aladrilgo ta Toledo'ko guda lekutik igaro la Teruel-aldera eroan eben.

Zein izan zan Teruel-aldera eldu ziñanean aurkitu zenduan giroa?

Giltzapeko asko egozan, euretariko batzuei epaiketa egiten eutsien erderaz «juicio militar sumarisimo» deritsoguna eta batzuk iltzera gaitzetsituak ziran.

Eta zuk zer ikusi dozu cspctxeko oneikaz?

—Ango komandanteak agiri bat bialdu eustan gabeko amabietan ziegan* egoteko.

Oso urrun nengoan emendik aurrera izango neukezan egun tamalgarriak iruditzeke.

Komandantea eldu zan esandako orduan zelatariak ziegako atea zabaldu eutson, eta beragaz sartzeko agindu eustan.

Sartu ondoren, epaiaren ondorena irakurri eutsen, goizalde orretan epaimaiak artutako erabakia bateko zala esanaz.

Euren eriotza suizkilluz koa izango zan.

Epaietako ondorengoa irakurri ta gero agurtu zan eta une itun areitan nere aurkezpena egin eban.

Gogorrak izango ziran ba une arek, ezta?

Iñor be ez da gauza nire aurrean 18 illabetez gertutakoak iruditzeke.

Komandanteak alde egiten ebala ta euren aurrean apaiz bat egoala ikustean, asarre

bizi ta larritasun guztiak nire aurka biurtu ziran esateko ez diran itzez eta egitez, batzuk billoztuten ziran, beste batzuk kaka egiten eben euren eskuetan gero nire jaurtiteko.

Aizu, on Benito, baña Teruel'go Santa Eulalia gudaletxcan ez egoan beste abaderik ala?

Bai, zuzen zagoz, ba egozan beste apaiz batzuk, baña dakizun lez, Teruel oso lurralde otza da ta beste abade bat ziegara yoyanean (ni kanpoan nengoalako) espetxekoen arrera txarra ikustean bereganako gorrotoa ta abar, naiko lan egiten ebala bere oge beroa itxita gabeko ordu areitan eurengana joateaz, adierazoten eutsen ordu goibel aretan baten batek bere serbitzuak bear ba ebazan gertu egoala lan ori egiteko, baña iñor urreratzen ez zala ikustean agurtu eta bere oge berora itzulten zan.

Ta zuk zer egiten zenduan eurakaz ba?

Itz egin daien laga, lasaitu daitezen.

Nasaituten ziranean Jaungoikoak emoten eustan eroapenagaz berba egiten neutsen NI ZERGAITIK ETA ZETARAKO NENGOAN euren artean.

Astiro-astiro paketzen ziran eta elkarizketa baketsuago ta kristiñaugo, bat sortzen zan gure artean bakoitxak bere kezka ta zalantza guztiak agertzen ebazan eta nik euren itaunak erantzuten nebazan.

Ixil-ixilik, zelatariak entzun ez egian nire gudariakazko bizitza azaltzen neutsen baita giltzapean nintzalarik gora bera batzuk ere bai.

Au entzutean nere aurka eukiezan traba guztiak alde egiten eben.

—Il baño len aurtotzen ziran?

—**Bai, dan-danak, zorionez bat ere ez zan ukatu gure Jauna artzeko.**

Militarrak arrituta egozan eta gaba batean, ziegako leiora joatea erabagi eben, barruan gertatzen zana ikusteko, baña ango jazoerak eta itzak ain gogorrek ziran eta guda-gizonak opera biurtu ziran.

—Baña beste batzuk epaiketa barik il ci ebezan, egia ete?

—**Bai olantxe da, iñoiz baño gitxiago pentsatzen nebanean «Policia Secretako» nagusiak bialdutako agiri bat artzen neban bere komandanziako atean goizaldeko ordu bietan egoteko.**

An ate aurrean, autobus bat egoten zan, barrura sartu, jesarri eta itxaron egiten neban 8 edo 10 bat giltzapeko eldu arte.

Onek autobusera igotzean eskuak loturik ebezala, jesarri ta gero, alde batera ta bestera begiratzen eben arrituta, ain goiz zertarako ete egozan an, noruntz eta zertarako abiatzen ziran.

Eginbarria zan bidezabal bat artuaz Teruel'go gudan zaindu ebezan lubakietara eroan ebezan.

Ara elduaz «guardia civil»ak jatsiten ziran eta euretariko nagusiak zergaitik eta zertarako an aurkitzen giñan espetxekoei adierazoteko agindu eustan.

Ni ezeztu nintzan bein eta berriz baña azkenean ez neban beste biderik eukiten, espetxekoei barri itun, zuzentasun-bakoa ta negargarria esatea baño:

Ba dakizue zertarako ekarri zaitueen ona? Iltzeko ekarri zaituee.

Ziegan epaituak epaiaren ondorena ezagutzean, egoera

larria ba'zan kontua alara oraingo onetan zer ez ete 77'1...

Neretzat oso penagarri zan, eurakaz berba egiteko eta euren naigabeai urteiera bat emoteko naiko astirik ez izatea.

Leku aretatik oso berebil git.vi ebillen baina, G. C'ko nagusiak, kotxeren bat agertuko zanaren bildurrez, espetxekoakaz berba egiten neban bitartean oso era Lvarrean esaten eustan:

«Pater, termine pronto».

—Iltzeko egozan oneik ere aitortzen ziran?

—**Beste espetxekoakaz egiten neban lez berba egin ondoren, ixiltasun une batzuk eskatzen neutsezan, izandako alkarrizketa gogoratzeko, ta une aretako garrantzia go-goan eukiteko.**

ONDOREN banan-banan aitortzen ziran autobus barruan, gero autobusetik urteten eben eta orduan «guardia civil» bik artu ta beste espetxeko guztien aurrean, lubakian jesarri eta izkilluz il egiten ebezan.

Ez da gatxa izango itxaroten egoan jendeen ikara ta beldurra iruditzea.

Eta olan danak il ziran.

—Zenbat izan ziran ildakoak?

Eztakit baña ia ziur esan neinke 400'etik gora izan zirala, batzuk epaiketa egin da gero ta beste batzuk epaiketa barik.

—Eriotza onen barria jendeak ba'ckian?

—**Ez, au bakar-bakarrik Poliziako nagusiak, eskolteak eta nik genkian.**

Arrigarria benetan abade onen bizitza! Liburu bat idal i leike!

Eskerrik asko, Aita Aipoita, ta gura dozun arte.

EUSKALDUN BARRI

ZER, ZERA ta ZEREKOA

Alkarren. lagun onaf;
Patxi eta Martin,
Bertso-kantuan dabiltz
sarri alkarrekin.
Leengo bateau biak
ekin eta ekin:
«Zereko zera Zer dan
ia zeifiek jakin».

* * *

P. Zereko zera zer dan
zuk ezetz igarri.

M. Alako zer ederra
daustazu ezarri!

P. Zera zertu ezker
ibiltzen da larri...

M. A bai, zereko zera
Patxi barregarri!

* * *

P. Zenbat zer ete dago
zeretik zerera?

NI. Onenbesteko zer bat
gitxi gora-beera.

P. Gaurko munduan beintzat
ez goaz zertzera.

M. Leen baiño zerago gaur?
A zelako zera!

P. Genre zerak zertzeko
ez dago besterik?

NI. Onenbeste zertuta
au ez da edozer.

M. Zerak zertu ezean
ez dago zertzetik .

P. Alperrik zerak zertu,
zertzen al da ezer?

P. Zereko zera gabiltz
ta ez dago zerik.


* * *

NI. Zer zer dan gaur nok jakin
zera zertu barik?

P. Ainbeste zertu barik
esaizu zeozer.

M. Zerak gertu ezker
zuri ta niri ZER?

A. Martrel



SANTXO AUNDIA

Eneko Aritza dogu Naparroa'ko erreinuaeren sortzaille, eta Santxo Aundia gure erreinu orren goi-maillako errege.

824'garrenean egin eben euskaldunak ENEKO Naparroa'ko buruzagi; eta andik berreungarrena baiño len, Europa'ko erregerik ospetsuena zan SANTXO AUNDIA.

Eta ori, berak eta bere aurreko erregeak egindako politika-jokoari esker.

Zein politika joko?

Mugetako gizonen buruzagiak ezkontza-bidez, beraganatu. Ori dala ta, Erromatarrak eta arein aurreko keltak gurera sartu baiño lenago euskal-lur genduzan bazter guztiak birjaso ta beraganatu zituan SANTXO AUNDIAK.

Ona emen, Santxo Aundia'ren erreinuko mugak: Bordel'etik Soria'raino, goitik bera; eta Asturias'tik Katalunia'raino, ezkerretik eskumara.

BURDIN - AROA

vIillagarrenaren aurreko urtean eta Iruña'ko uriburuan izan zan koroatua SANTXO AUNDIA.

Bcderetzigarren gizaldi illuna istilluz eta bal-tzunez betekoa izan zan Europa guztian; Iparial-deko Wikingo praka-gorrien eta Egoaldeko arabiar muztur-baltzen eraso ta eragiñen ekiñagaitik, ba-tez be.

Naste areik zirala ta, millagarren urtean munduaren azkena zetorrela zabaldu zan bazter guztletan.

Urtegarren aretan ezkondu zan Santxo, Kastelerriko buruzagiaren alaba Munia'gaz ezkondu be.

* * *

Amar urte lenago, here Leire'ko konbentuan azi ta eziten egoan bitartean, arrabiarrak Iruña'ko inguructan ebiltzan euskal-erreinuko uriburua curakanatu gurean.

Santxo Abarka zan orduko crrerca Naparroa'n.

Ipar-Euskalerrian egoan, ango inguructara sartu ziran sartu ziran Wikingoen aurka burrukan. Eta negu gorria izan arren, Auñamendi edurrez zuri-zuri egoala, Egoalderako bidea artu eban.

Abarka arinak berak eta bere mutillak jantzi, mendiak lasterka igaro, ta Iruña'ra sartuta, ango arerioak bcingo baten ondatu eta igeska jarri zituan.

Almanzor zan arabiar onein buruzagia. Sekulako kalteak egiten jarraitu eban kristiñau errietan.

Santxok, here koroatzearen irugarren urtean, here koñatu zituan Leon'go ta Kastelerriko kondea beraganatu eta Almanzor'en aurka joan zan arcikaz batera.

Soria-inguruko Katalañazor zelaietan izan zan burrukea.

Sekulako burrukea!

Almanzor'ek galdu eban gudaldia, baita here bizia be gudaldiagaz batera.

URRE - AROA

Wikingoak eta arabiarak emendik betiko urruniu eta 33 urrezko urte ederrak emon zituan SANTXO'k here erreinuaeren buru lez.

Lurrak aberastu zituan, erriak jantzi, konbentu kultura-cragilleai lagundu, artu-emon aberatsen iturri zan Santiago'tarren bidea obetu, egokitu ta zaindu...

Baiña uts aundi bat egin eban criotz-zorian: ainbat kostata osotutako Euskalerrria zatitu.

Ez eban orretan euskal-lege zarra jarraitu, Frankoen lege barria baiño.

Eta orrelan, here seme zarrena zan Gartzia'ri oraingo Euskalerrria osotzen daben zazpi errialdeak 'ta Euskalerrri zan Errioxa emon cutsazan.

Bere bigarren seme zan Fernando'ri Kaste-erriko Konde-erria.

Ranimiro irugarren semeari Aragoe.

Eta laugarren eta azkenengo bere seme Gonmlo'ri Sobrarbe ta Ribagortza.

* *

Andik urte batzutara Fernando'k Kastela'ko errege egin eban here burua. Ramiro, Sobrarbe a Ribagortza here anai gazteari kenduta, Aragoe'ko errege egin zan.

Euskaldunak dira ba, Naparroa'ko erregea jide dala, Kastela ta Aragoe'ko lenengo erregeak. Euskaldunak, baita, erreinu bi oireitako lenengo z ii a gu nak.

URKIOLA'k

EUSKERAZALEAK

Urrillaren 10'ean asi ziran emen EUSKERA ?ALEAK'tan 500'dik gora ikasle buru-belarri bizkaiera ikasten.

Jo la Ice dardue!

Gazteenak 14'ren bat urte.

70 urtetik gorakoak be ba dira.

Batzuen eta besteen artean, aitita - amamak, guraso gazteak, morrozko gordiñak eta goizoillanda zoliak.

* * *

Ikas-orduak eguerdian, eta 6 1 / 2'etatik 9'retara arratsaldez.

* * *

Gela baten ,NAz, ZARA, DA, GARA...; bestean NINTZAN, IZANGO... e. a.; irugarren baten aurreratuenak esaera zabalagoen korapilloak ezin osoturik, ezin askaturik, guraka ta ezinka... amaika txoriren txorrotxioz, txirulioz, kirrioz eta txiopioz itxartzen dan udabarri bizilaguntsua dirudi ikastetxe onek.

* * *

Urteetan zear lobedarrezko lozorroan belarrietaraiño sarturik to-la-lo izan dogun barru-arraren itxartze ta artega-aldian bizi gara.

* * *

Urte bakoitxean ikasten asten diranetatik laurenak euskaldunduko ba'lira, geroaldian zorionsua litzake Aitor'en izkuntza zarra.


LANDAJUELA'tar Andoni'k

ZER DA:

- Lakaina? — Mats-mordearen edo beste garau batzuen zatia.
- Alegia? — Sarritan piztiak norki dirala gizonentzat erakutsia daukan ipuiña.
- Arrobia? — Arria aterateko lurraren azalean egiten dan zuloa: Arri-obia.
- Mardula? — Sendoa, lodia, ederra.
- Berein? — Asko.
- Kinka? — Aldi estua, gizona nora-ezean dagon denporea.
- Dager? — Agertzen da.
- Dakus? — Ikusten dau.
- Aldartea? — Poz-giroa.
- Unkigarria? — Barruan zerbait somatzeko bidea, senti-bidea.
- Leñargia? — Leñu edo erraza garbikoa, «hidalgo», «NOBLE».
- Txumea? — Zea, bemaillakoa, «plebeyo».
- Gaitzetsitu? — Gaiztotzat epaitu, «kondenatu».
- Ziega? — Espetxeratuak, eriotzarako epaitu ondoren izaten diran gelea.
- Suizkillua? — Gudan tiroz erabilten diran izkilluak edo armak.

ZER

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO

ONDO ERANTZUTEN DAU